

Atseden barik

Lanaren lanez nekatu egin oi gera. Ezin beti lanean ari. Atseden pixkat artu bearrez gaude. Bai, atsedena nai degu, ta bear degu. Txoriak ezin egun osoz kantuari lotu. Ortan gizona ezta, txoria baiño geiago.

Ez noa literatura garratzik urratzen. Ez zait atsegin. Gaiñera idazleok, nik uste, ez al gera biziak berez duen garraztasuna uxatzen ale gindu bear? Gizarteari eztiagu, ez, duen baiño garrazkeri geiago ezarri soin-bitzka osorik galdu ta gero il egiten gera. Ez dezaiogun gere erriari pozoirik eman; ez dezagun il-erazi.

Urtearen amaisa. «Oraindik 100 urte, zinu ei degu; ez degu ire ezer ere nai; 365 egun ditugu» — «Erau ditzan ira jaioz-egunaren zai geunden. Orain ba-da, hau da?» — «Hau da, guretxori atzean utzirik. Doakabe aiz, mixeriz hau».

Eta egutegira legein  
ote dakarkigu? Itxaropena  
tako mitxeleta iduri, aitzi  
dana dator poz-zirkulu?

Kale ta baserri, berria  
ta kolore. Eguberri igarce, <sup>1</sup>  
ta pertxenta. Irriparretsu ta zelat  
berria. Urte berri!

Bitartean guk atsedena nai genuke. Zarrat agur egiteko, ta berria oleska, txalo-zarta etengabez artzeke. Biak, ez al dute ori merezi? Inguruau, baiña, izkanbil geiegi degu; ez degu ezer aditzen. Zenbat zarrata! Etxe barruan... Kale ta bideetan... Nolako zalaparta, abarrotsa, naste zabala!

六二六

Barnera ere, begiratu goxo bat beiñipein, bota nai genuke. Ezin, alere! Garai au on litzakigu zerbait gogoratzeko, ta zerbait ausnartzeko. Abere ez gera bakarrik, adimendun gizon ere bai. Zer ausnartzeko? Gizona ez dala oraindik gizon... Ortarako, inguruan ditun mugak eta esia, kateak eta lokarriak eten bear ditu.

Urte berri! Ez degu olako azterketarik egiteko astirik. Bai, ordea, jan eta edan galanki ta bapo egiteko. Dirua ere gurdika gasta ta eralgi. Auzokoaren bizkarretik gelegitan. Iñoren dirua! Gaizki metatua! Erri aberatsak, eta beartsuetan ere, auen odoletik itzain bezela bizi diranak, nolako itxura, nolako aize, diru-parrastada ta bonbonkeril. Bizi, begiak itxirik... Iñoren garrasirik entzun gabe... Bizi, atseden barik!

\* \* \*

Urtearen asialdian ospatzen degu —atseden barik, au ere— Kristo'ren Jaiotza. Gertakari aundia, noski, munduko kondairaren orriean, Aingeruak ordun au abestu zuten: «Aintza zenuetan Jainkoari ta pakea Iurrean gogo oneko gizonai». Nortzuk ote gaur gogo oneko gizonak? Jauregi ta sukalde epeletan aukeran bizi diranak? Ala min-alsekabez odoletan daudenak? Nortzuk ote?

Maite-opaka agertu zitzaigun Kristo. Ta gure artean ere, henebat, mundu osoan, maitasunaren sugarra nai zuen, guztiz irazekia. Gi aseme guztiok bat izatea nai zuen Kristok; ez, ez zuen gerrarik nai suri ta beltz, denok nai giñuzen pakearen besoetan kulunka. Baiña gorrere burrukan daude Vietnam'en eta Biafra'n eta Sorkalde Erdiaren baita beste toki askotan ere, sua degu gizonen artean.


Pakea! Itz lillurakorra, noski. Alere, ezpañetan bakarrik, tezko pakerik ezpaitegu. Ia bi mila urte dira Kristo jaio zala, gizonar pakea eskeinka etorri zitzaigula, aren Eliza ere mundu osoarentzat pa'billabili gula. Gizonak, baiña ez izan gogo onekoak; ez dute pakerik gura, au zoritzar!, gerra-iskanbilletan ondatuak bizi gera. Pakerik ez! Ez kanpoan, ez barruan. Gerra, gerra nai degu! Mentu gaiztokoak gera, nunbait.

Alere, irriparrez, kaleak zear. Urte berriz alkarri zorionka. Zeren zorion? Zergaitik? Eskui-ezker gosea, egarria, ta gu zorionka? Anai opaka!

Orrela goaz bideak zear. Olan ditugu gaur munduko antolaketa ta estrukturak. Noiz eta nola eratsi egitamu auek, obeagoz orniturik? Zailla da. Baiña egin-bearrezkoak. Istoriarak darakusunez, len ere egiñak dira olako aldaketak. Gaur zergatik ez? Astindu dezagun zer ori gera lepotik.

Lan dezagun, atseden barik, Kristok nai zuen bezelakoak izaten. Irriparr gaitzo gabe, maltzurkeri gabe. Kristok Mendiko itzaldian esan zigun bezela.

O.



## Itaun-Erantzunak

1. **Bakea.**—Aita Santuak, aurtengo urtea astean, au Iñaki ma'tik, deadarka: «Nora ete doa Gizadiaren bidea?». Ta Gizonak be, munduaz gero ta geiago jabetzen yaku; gero ta aurrenagatzean, gauza guztiak darabil, gauza guztiak, baiña batez be teknikan, kulturan, gizartean... Eta ain bizi opa dogun bakearen arloan? Bakel Bakel. Zein dion tatu giza-gurari bizi onetzaz?

— Gizona berez bakerako egiña danik ezin geinke ukatu. Baiña bakeaz jabetzea ez yaku gauza erreza. Kristo jaio zanean, «bakea Iurrean gogo oneko gizonai» aingeruak abestu eben arren, Kristo'k berak esan euskun: «Ez naz bakea ekartera etorri, burruka baiño». Eta esakun zarrak: «Bakea nai ba'dozu, egizu gerra». Bakea sortu egiten da, ez gozartu; ezta esku arteko elburu bat, gorago jorik guztiok eskuratu bear dogun zerbait baiño. Ezta lo egotea, baiña bai alkarri lagunduaz goragoko bideari ekitea, ustez ta egitez. Aziera dogu bakea, zerbitzua, emotea; gaur mundua zuzentzen daben ideia ta uste asko barriztatzea. Mundua, izan be, uste ta eritxi okerrez, guzurrez eta norberekeriz beterik dago. Eritxi oker orreik atera ta barriak munduan sarrtzen jardutea, bakearen alde jokatzea dozu.